

Kultura

Lokaletik At musikari gazteentzako lehiaketa aurkeztu dute Plateruenak eta Amankomunazgoak. > 12



Ez ezetz da

Eraso sexisten aurkako manifestazio batekin ekingo diete aurten San Fausto jaiei. Gauerdirako, manifestazioa deitu du Bilgune Feministak. Era berean, txosna batzordeak erasoen aurkako gida kaleratu du. > 3



Lehior Elorriaga

Anbotoko Kilometro Bertikalean gora, onenen artean lehiatuko dute txapela

Anboto Kilometro Bertikalaren VIII. aldia lehiatuko dute, bihar. Modalitate honetako izarrik handienek parte hartuko dute proban. Besteak beste, gizonetan Aitor Osa, Oier Ariznabarreta, Imanol Goñi eta Andrea Caroli. Emakumeetan, Nahia Quincoces, Oihana Kortazar, Montserrat Vazquez, Aitziber Ibarbia eta Inma Aranburu txapelaren bila joango dira. > 16

“Margarita Maturanak argi zuen ez zutela behar eurengan aginduko zuen gizonik” > 10

J.M. Cembellin | Historialaria



Durango > 3

Udalak urtebetez ez diela erantzunik eman dio DAZek

Elorrio > 7

Elikagaien bankuagaz zazpi familia lagundu dituzte, hilero

Iurreta > 6

Askondo kaleko aterpearen proiektua aurkeztu dute

Mañaria > 9

Umeekin ere erabakiko dute datorren urterako aurrekontua

Herririk herri

“Herriko jaietan ez dugu eraso sexista bakar bat onartuko”

Eraso sexisten aurkako manifestazioa deitu dute

DURANGO Markel Onaindia Erasoren aurkako aldarriek San Fausto jaien hasiera markatuko dute, gaur. Durangoko mugimendu feministako hainbat kidek manifestazioa deitu dute, gaueko 00:00etarako, Santa Ana plazan hasita, balizko erasoei aurrea hartu, eta autodefentsa feministaren mezua kalerik kale zabaltzeko.

Azaldu dutenez, uda Euskal Herrian “berezikigogorra” izan da emakumeen aurkako erasoei dagokienez, eta kezka agertu dute jaietan erasoak ugaritzen direlako. “Nazkatuta gaude, eta ez dugu gure herriko jaietan eraso sexista bakar bat ere onartuko. Inoiz baino beharrezkoago ikusten dugu kaleak hartu eta gure amorrua adieraztea”, esan dute antolatzaileek. Gainera, erasotzaileei zuzendu zaizkie, eta *Erasotzaile, argi ibili!* da protestaren lemetariko bat. Mezu hori gaueko manifestazioan irudikatzeko, linternak eramatea eskatu dute. Gaua argituko dute, jaia eta gaua eurenak ere badirela aldarrikatzeko.

Horrela, jaien hasierako protagonistak emakumeak izatea gura dute: “Ezarri nahi diguten biktima papera albo batera utzi, eta kaleak hartuko ditugu, gure biziak eta gorputzak direlako joan daudenak”.

Txosnaguneko gida

Txosna Batzordeak eraso sexisten aurkako gida bat argitaratu du; eskurik esku banatuko dute, eta txosnetako barretan ere egongo da. Bertan, hainbat gomendio eta telefono jasotzen dira. Lehenik eta behin, egoera bat emakumearen gustukoa

ez bada, hori jakinarazteko aholkua egin dute. Erasoren aurrean, *sua!* oihukatzea gomendatu dute, eta konfiantzazko lagunen edota barran lanean dauden laguntza bilatzea ere bai. Gainera, autodefentsarako deia egin dute. Gero, konfiantzazko norbaiti deitzeko esan dute, eta salaketa ipini nahi bada, gogoratu dute, garbituz gero, frogak galdu ahal direla.

Bestalde, herritar guztiei erasoen aurrean aktibo izateko deia egin die Txosna Batzordeak; eraso egoera bat ikusiz

Txosna Batzordeak eraso sexisten aurkako gida bat argitaratu du; eskurik esku banatuko dute

gero, emakumea babestea eta erasoak salatzea eskatu dute. Txosnetakoek ere protokolo bat edukiko dute, balizko erasotuei laguntza emateko.

Udalaren mahaiak

Udalak ere badauka protokoloa, eta informazio mahaiak ipiniko ditu zapatu bietan, 19:00etatik 22:00etara. Bihar, Alde Zaharrean egongo dira, eta 17an, Landakon. Horrez gainera, musika eta pegatina ez sexistak banatu ditu udalak taberna eta barraketan.

Eraso egoerak sufritzen dituzten emakumeek honako telefono zenbakietara deitu ahal dute: 946 030 010 (Udaltzaingoa), 944 669 300 (Ertzain-etxea), 016 (Indarkeria sexistaren aurkako), eta 112 (Larrialdiak).



Astlehenean Erandion izandako hilketak salatzen, protesta egin zuten eguaztenez. Lehiar Elorriaga

Intxaurre eta Herria, suzirien arduradun

Gaur zabalduko dituzte txosnak, Landako Gunean

DURANGO M.O

Bihar hasiko dira jaiak ofizialki, Herria auzo elkarteak 13:00etan udaletxetik jaurtiko duen txupinazoagaz. Hamarkadetan zehar, Aramotz auzunearen alde egindako lana eskertu gura izan du udalak aukera horregaz. Hala ere, gaurtik egongo da festarako giroa; izan ere, Txosnagunea gaur iluntzean zabalduko da, 20:00etako txupinazoagaz. Kasu honetan, Intxaurre elkarteak botako du.

Txosna batzordean parte hartzen duen elkarte hori ixteko arriskuan dago, Auzitegi Gorenak *Herriko Tabernen* auzian horrela agindu duelako.

Urriaren 12 eta 13 jai egun ofizial direnez Durangon, jai-zaleek asteburu luzea edukiko dute aurretik. Udaleko jai batzordeak eta txosna batzordeak ekintza ugari prestatu dituzte, gainera. Adibidez, bihar Gazte Eguna ospatuko dute Txosnagunean, eta domeka Umeen

Eguna izendatu du udalak. Astlehenean, Marmitako Txapelketa jokatu da, Ezkurdin.

Txartelak, herritarrentzat

Durangoko zinegotziek hainbat gonbidapen jaso ohi dituzte jaietako ekintzetarako. Adibidez, barraketarako edo kirol ekitaldietarako txartelak edukitzen dituzte, soilik kargudunak izatearren. Bada, txartel horiek herritarren artean banatzea erabaki dute EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak (Podemosek babestutako taldea). Aurten, zesta jaialdirako gonbidapenak jaso dituzte momentuz.

Iaz, barraketarako 190 txartel jaso zituen EH Bilduk, eta gauza bera egin zuen.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko urriaren 9a,
13. urtea - 605. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Anbulantzia medikalizatuaren aldeko 2.000 sinadura

DURANGO M. Onaindia

Durangalderako anbulantzia medikalizatua eskatzeko sinadura bilketa sustatu du PSE-EEK, eta 2.000 inguru jaso dituzte. Idoia Agorria senatariak, PSE-EEren bozeramaile Jose Antonio Pastorregaz eta Blanca Roncal Osasun batzordeko ordezkariagaz batera, aurkeztu zituen sinadura hauek, joan zen astean, Eusko Jaurlaritzan. Sozialistek diotenez, Du-

rangotik gertuen dagoen era horretako anbulantzia Gernikan dago, eta handik Durangaldera etortzeko behar duen denboragatik kezka azaldu izan dute larrialdietako beharginek eta herritarrek. Sozialistek esan dute, Durangaldean “benetako dramak” bizi izan direla egoeragatik. Hilabeteetan zehar egondako eskaeren aurrean, “entzungor” egitea egotzi dio Agorriak Eusko Jaurlaritzari.



PSE-EEKo kideak, sinadurak erregistratzen.

EH Bildu partaidetzaren ordenantza lantzen

EH Bilduren ustez, udal gestioa “atzerakoia” da

DURANGO M.O.

EH Bilduren iritziz, gaur egun udalak herritarrekiko daukan gestio eredua “atzerakoia” da. Hori arrazoitzeko adibide lez, herritarrek mozio bat aurkeztu gura badute, alderdien izenean egin behar izatea ipini du. “Garaiak aldatu” direla-eta, partaidetzarako ordenantza lantzen hasi da EH Bildu.

Hainbat nobedade dakartza EH Bilduren proposamenak. Horren arabera, herritarrek zuzenean parte hartu ahalko dute osoko bilkuretan, eta gaien araberrako kontseilu sektorialak sortuko dira. Eskaera eta kexen arloan, udalak hilabeteko epean eman beharko die erantzuna, eta batzar eskaerak ere

onartu beharko ditu. Gainera, herritarrek proposamenak aurkeztu eta kontsultak egitea eskatu ahalko dute. Hauteseroldaren %10ek sinatu beharko dituzte eskaera horiek; 2.200 lagun inguru uneotan. Horrez gainera, udal arduradunen eta herritarren arteko topaketak egitea proposatu du EH Bilduk. Bestetik, udalak informazioa webgunean ipini beharko luke, aurrekontuarena edota zorrarena, adibidez.

Hilaren 20an auzo elkarteekin batzarra egin gura du EH Bilduk, eta, 27an, beste eragile eta herritarrekin. durango@eh-bildu.eus helbidera idatzita, edo udaletxean duten bulegoan ere egin ahal dira ekarpenak.

DAZek esan du udalak ez diela erantzunik eman urtebetean

Karkaben inguruko eskaera bat aurkeztu zuen DAZ elkarteak, orain urtebete



Jose Mari Arrillaga, erdian, DAZeko kideekin batera emandako prentsaurrekoan.

DURANGO M.O.

Alde Zaharreko DAZ auzo elkartearen arabera, udalak ez die erantzunik eman urtebetean. 2014ko urrian, karkaben inguruko eskaera bat erregistratu zuten udalean, eta urtebete pasa denean, oraindik erantzun baten zain daudela kritikatu dute prentsaurreko baten bidez. Tabernariei jailetan karkabak biltegi lez erabiltzeko baimena eman zien udalak, eta aldaketa hori zergatik eman zen jakin gura zuten auzokideek. Izan ere, euren

ustez, larrialdi egoera baten aurrean, tabernetako kaxa eta materialek karkabetako bidea oztopatzen dute.

Suteetarako plana

Baina, udalaren erantzun falta ez ei da eskaera horri loturikoa bakarrik. Jose Mari Arrillaga DAZeko presidenteak azaldu duenez, Bermeoko Alde Zaharrean 2013ko apirilean piztutako suaren ondoren, Durangon suhiltzaileekin bisita bat egin zuten karkabetara. Suhiltzaileek ere larrialdietarako plan

bat egiteko beharra ikusi zutela esan du Arrillagak, baina ordutik hona ez dela pausorik eman. Horregatik, karkabetarako sarrera erraztea eta lekuan bertan ura hartzeko puntuak ipintzea eskatu du. Gainera, inguruak argiztatzea eta garbitzea ere exijitu du. Udalak karkaba batzuk konpondu ditu, baina falta direnak noiz konponduko diren galdetu du DAZek.

Elkarrizketarako deia egin dio udalari: “Nahikoa da. Ea egunen batean akordioetara helden garen”.

Beldur Barik lehiaketa martxan dago eskualdean

Indarkeria sexistaren prebentzioa landuko dute

DURANGALDEA M.O.

Abadiño, Berriz, Elorrio, Durango, Iurreta eta Zaldibarko udalen eskutik, martxan dago aurtur ere Beldur Barik lehiaketa. Azaroaren 25aren –Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Eguna– testuinguruan

antolatzen da lehiaketa, gazteen artean indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko asmoz. Durangaldean lehiaketa propioa egiten da, baina erkidegoko programa baten barruan dago. 12 eta 26 urte arteko gazteek parte hartu ahal dute, indarkeria se-

xistaren aurkako ikus-entzunezko lanak aurkeztuta.

Arriolan topaketa

Azaroaren 11ra arte egongo da proiektuak aurkezteko aukera, eta www.beldurbarik.org webgunean daude irizpideak. Durangaldeko partaideekin topaketa egingo dute, azaroaren 26an, Elorrioko Arriolan, eta bertan emango dute irabazleen berri. 100 eta 300 euro arteko sariak egongo dira jokoan. Erkidegoko topaketa egun bi geroago izango da, Amurriion (Araba).

A. Urreta
podólogo

Podinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 · DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 21406

90 GRADU
LAN BERTIKALAK
TRABAJOS VERTICALES

**FATXADA ETA PATIOEN
KONPONKETAK ETA MARGO LANAK**
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Tel.: 616 413 660
info@90gradu.com
Bernagoitia auzoa, 14 - ZORNOTZA

ALDAMIORIK GABE

Hitzaldiak, kartografia eta argazkien erakusketa Gerediagaren urtemugan

Gerediagaren 50. urteurrena dela-eta, hainbat ekimen antolatu dituzte



Ramon Oleagaren mapak osatzen dute Durangaldeko kartografiari buruzko erakusketa.



Durangaldeko argazki zaharrak ikusgai daude Arte eta Historia Museoan.

DURANGALDEA J. G. Gerediaga elkarteak bere bost hamarkadako ibilbidea egitarau oparoagaz ospatu gura du. Horretarako, urriko eguaztenez, hitzaldi zikloa jarri dute martxan, Arte eta Historia Museoan.

Lehenengo hitzaldian, Margarita Maturana (1884-1934) eka-
rriko dute gogora. Maturanak Berrizko klausura komentua misiolarien institutu bilakatu zuen. Horrela, Berrizko mojak, klausuran egotetik, mundua zeharkatzera pasatu ziren. Aldaketa horren sustatzailea

dohatsu izendatu zuten, 2006an. Baina, sasoi hartako emakume batek nola eragin zuen aldaketa hori? Zelan ulertzen zuen mundua? Galdera horiei eta gehiagori erantzuteko, Juan Manuel Cembellin Eliz Museo-ko arduraduna eta Todos los Apellidos vascos ETBko programako historialaria gonbidatu dute *Margarita Maturana. Edo zelan aldatu mundua Berriztik* hitzaldian parte hartzeko. Hitzaldia eguaztenezan izango da, urriaren 14an, 19:00etan.

Urriko hitzaldi zikloa Alberto Santana historialariak itxiko

du. *Aitaren etxea. baserria Euskal Herriko historiaren oinarri-ko iturria* berbaldian, Santanak baserriak Euskal Herriaren historian izan duen garrantzia aztertuko du.

Durangaldeko kartografia Gerediagaren urteurreneko ekimenekin jarraituz, Durangaldeko kartografiaren erakusketa prestatu dute. Ramon Oleagaren bilduma pertsonaleko 20 mapez osotutako erakusketak garai ezberdinetako Durangaldea erakusten du. Antolatzaileek azaldu dutenez, 1606koa da erakusketako zaharrena, eta 2005ekoa berriena. Erakusketa osatzeko, egileak berak, Gerediagak eta Museoak katalogoa argitaratu dute, elkarlanean.

Zuri-beltzean klik

Durangaldeko 333 argazki zahar biltzen dituen erakusketa ibiltariak Durangoko Arte eta Historia Museoan egin du azken geldialdia. Erakusketa honek, Gerediagaren 50. urteurrenean, esker on eta aitortza izan gura duela diote Gerediagako kideek. “Denboran zehar bidaiatzea ahalbidetu duten argazkilariei euren lana aitortu gura diegu”, diote elkarteko arduradunek.

Elorriorako oinezkoen ibilbidea zaintzeko

Ibilbidea behar bezala dagoela egiaztatuko dute

ZALDIBAR I.E.

Zaldibar eta Elorrio artean, Santa Marinatik Santruan ermitaraino, hainbat azterketa egingo dituzte, datozen asteetan, PR BI 73 basa-bidearen homologazioa berritzeko helburuagaz. Bizkaiko Mendi Federazioak egingo ditu homologazio eta mantenurako lan horiek, azaroaren 30a bitartean.

Hamar urterik behin berritzen da PR (10 eta 50 kilometro arteko ibilbide laburra) lizentzia, baldin eta ibilbidea egoera egokian dagoela baieztatzen badu dagokion mendizale federazioak. Besteak beste, bidea behar bezala irekita dagoela baieztatu beharko dute, eta baita, seinaleztapenari eta mantenuari dagokien ere, gauzak behar bezala daudela.

Arantza Baigorri alkateak azaldu du, urte askoan PR izendapenerako baldintza horiek betetzen diren egiaztatu barik eduki duela, eta udalean uztai-lean jaso zutela homologazioa berritzu beharraren berri.

Bidearen seinaleztapena behar bezala dagoela baieztatuko du, besteak beste, Mendi Federazioak

Homologazioa berriztuta, mendi ibilbideen zerrenda ofizialean jarraituko du Zaldibar eta Elorrio arteko bide horrek, segurtasunari eta kalitateari dagokien baldintzak betetzen direla baieztatuta.

Argazki lehiaketa bidez egutegia osatuko dute

Hiru argazki aurkeztu behar dira urriaren 30erako

ATXONDO J.Derteano

Atxondoko udalak udal egutegia aterako du, lehenengoz, 2016an, eta hori osatzeko, argazki lehiaketa abiatu dute. Lehiaketatik irtengo dira egutegia osatuko duten 12 argazkiak.

Lehiaketan parte hartzeko, hiru argazki aurkeztu behar dira, urriaren 30eko 12:00 baino lehen, udaletxeko erregistroan. Argazkietako bat paisaia izan beharko da; bigarrena eraikina, eta hirugarrena pertsonak. Denak Atxondo udalerrian eginak izan beharko dira.

Irudiak hiru argazki-paperekin entregatu daitezke, 30x20-ko formatu horizontalean, eta koloretan. Horiekin batera, irudiak jasotzen dituen CD bat

entregatu beharko da, 300 ppp-ko —pixel kopurua pulgada-ko— erresoluzioan, gutxienez. Irudiekin batera, parte-hartzaileek izen-abizenak, helbidea, herria, telefono zenbakia, NAN zenbakia, adina eta helbide elektronikoa ipini beharko dituzte gutunazal batean.


Hiru sari banatuko dituzte

Hiru sari banatuko dituzte abenduaren 6an egingo duten Nekazaritza eta Artisanatza Azoka egunean. Hiru argazkien multzo onenak Tablet Samsung Galaxy Tab bat eta 100 euro irabaziko ditu. Bigarrenak marka bereko tableta eta 50 euro. Herriko argazkilaririk onenak ere tableta bat jasoko du.

San Juan auzoa, 20 · Atxondo, Bizkaia
Tel.: 946 582 060 · www.akebasorestaurante.com

akebaso RESTAURANTE
JATETXEA

Zatoz gure menuak gozatzera!
Asteazken zehar menu exekutiboa 29€+BEZa eta asteburuetan 33€+BEZa.



MATERIA ORGANIKOAREN GAIKAKO BILKETA BERRIA



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak materia organikoa gaika biltzeko proiektu pilotu berria jarriko du abian Abadiño (Zelaleta, Urkiola eta Muntzaratz), Atxondo, Elorrio eta Zaldibarko udalerrietan. Esperientzia pilotu berri hau bi ardatz desberdinetan banatzen da; alde batetik, herriguneetan bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia ezarriko da, eta, bestetik, landaguneetan etxeko konposta bultzatuko da.



EDUKIONTZI MARROIA

Edukiontzi marroia erabili ahal izateko, beharrezkoa den materiala (*ontzi marroia, poltsa konpostagarriak eta edukiontziko giltza*) jasotzeko informazio saioetara etorri zaitez.

- informazio saioak -

Abadiño

Data	Ordua	Lekua	Hizkuntza
15/10/19	19:00	Muntzaratz Auzo Elk.	Elebiduna
15/10/20	19:00	Txanporta Kultur Etxea	Elebiduna

Atxondo

Data	Ordua	Lekua	Hizkuntza
15/10/26	19:00	Eskolako gimnasioa	Euskeraz
15/10/27	19:00	Eskolako gimnasioa	Gaztelaniaz

Elorrio

Data	Ordua	Lekua	Hizkuntza
15/10/28	19:00	Arriola Kultur Aretoa	Elebiduna
15/10/29	19:00	Arriola Kultur Aretoa	Elebiduna

Zaldibar

Data	Ordua	Lekua	Hizkuntza
15/10/21	19:00	Liburutegi zaharra	Elebiduna
15/10/22	19:00	Liburutegi zaharra	Elebiduna

DOAN



ETXEKO KONPOSTAJEA

Ekoitzi zure ongarria sukaldeko hondakin organikoak aprobetxatuz!

ZURE HONDAKIN ORGANIKOAK
MURRIZTUKO DITUZU

KALITATEZKO ONGARRIA
LORTUKO DUZU

Zure hondakin organikoak murriztea erraza izan dadin, jaso itzazu dohainik konpostagailua, gida-liburua eta formazioa. Horretarako, izena eman telefonoz, whatsapppe edo posta elektronikoz.

DOAN

☎ 946 232 522

📞 608 462 297

✉ organikoa.mdurango@bizkaia.org

www.organikoadurangaldean.com



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Elorriko udala



ZALDIBAR

Gaztetxeko baratzaren bidetik, ortu sozialen proiektua helburu

Autogestionaturiko ortuak martxan ipini gura ditu herritar talde batek



Udaberrian landatu zituzten gazteek haziak, eta ezelako produktu kimikorik barik jorratzen dute.

ABADIÑO **Itsaso Esteban**
Duela hiru aste, Gaztetxe ondoko lursaileko ortua hamabost egunen buruan kentzeko agindua eman zien Jose Luis Navarro alkateak asanbladako kideei. Herritarrena den lur bat erabilera pribaturako hartu zutela, eta lehen zegoen bezala uzteko agindu zien alkateak.
Aste biko epemuga igarota, zegoen lekuan darrai Itaidxe

taldeak atondutako ortuak. Gazteek udaberrian landatu, eta ezelako produktu kimikorik barik hazi dituzten tomateak, piperrak, berenjenak, eta kala-bazinak daude, besteak beste, lursail horretan.
Alkatearen gutunari erantzunez, oharra kaleratu zuten gaztetxeok. Ortuak ez dela pribatua, baizik, gaztetxe moduan, "herritar guztiei irekita dagoen

proiektua", azpimarratu dute gazteek. "Mehatxuekin" ez direla "kikilduko", eta ortua ez dutela kenduko iragarri dute. Ortuak ipini duten gazteek dioteenez, "beren burujabetza ahalik eta gehien garatu nahi duten gazteak" ditu Jose Luis Navarro alkateak aurrean. Hain zuzen, herritarren boteregune eta burujabetza esparru horiek direla gobernu taldearentzat benetako

arazoa uste dute gazteek. Ortuak kentzeko alkateak emandako agindua, "bere boterea praktikatuta eta berresteko grin hutsa" dela diote asanbladakoek.

Ortuak kentzeko aginduaren ostean, eta gazteen erantzuna entzun eta gero, ortuak lekualdatzea proposatu zuten, joan zen martitzenean, Jose Luis Navarro alkateak. Ez du erantzunik jaso, baina esan duenez, "lorategiak bere itxura berreskuratzea, eta gazteek landatutakoa kentzea" espero du alkateak.

Joan zen martitzeko udaleko plenoan ere berbagai hartu zuten gaztetxeko ortuaren gaia. EH Bilduk kritikatu egin zuen gai horregaz gobernu taldeak izan duen jarrera.

Ortu Sozialen Taldea

Gaztetxe ondoko lursailean bezala, autogestioaren aldeko apostuagaz, ortu sozialen proiektua martxan ipini gura duen taldea sortu berri da, Abadiñon. Taldekideen esanetan, "urteetan jende ugari joan izan da udaletxera, landu ahal izateko lur zati bat eskatzera, eta erantzuna ezezkia izan da beti".

Udalak erabili bako lursail asko dauzkala jakitun direlako, herritarrek antolatzen hasi direla dio Ortu Sozialen Taldeak. Urriaren 12an, 18:00etan, Txanporta kultur etxean egingo duten batzarrera joateko gonbidapena egin diete ortu sozialen ekimenagaz bat egin gura duten abadiñarrei. Interesa duenarentzat, abaortuak@gmail.com helbidea ere zabaldu dute.

IV. Baserri Eguna ospatuko dute gaur arratsaldean, Traña plazan

ABADIÑO **I.E.**

Bertako produktuen azoka eta hainbat tailer izango dira, Alluitz Natura enpresaren eskutik, Traña plazan, gaur arratsaldean. Baserri Egunaren laugarren edizioa ospatuko dute. Azoka eta bertoko produktuen erakusketa egingo dute, 17:00etatik 20:00etara; eta 17:00etatik 19:00etara, gozokiak, belaki naturalak, edo taloak egiten ikasteko aukera egongo da, besteak beste. Bestalde, txapel jaurtiketa lehiaketa ere egingo dute, 19:00etatik 20:00etara, laugarren urtez.

Baserri bisita

Traña plazako ekintzen osagarri, ikasle talde bi Mendiola auzoan dagoen Alluitz Natura baserria bisitatzen joan dira. Bertan, artzainaren lanbidea ezagutu dute; artilea landu, gazta egin, eta gatzatua dastatu dute baserriarren eskutik.

Alluitz Natura enpresak eta Abadiñoko Udalak HAZI fundazioaren laguntzagaz antolatuta dute IV. Baserri Eguna. Barrikukoa bezalako ekimenekin, "kontsumo jasagarria eta nekazaritza-ekonomia dibertsifikatua" bultzatu gura dituzte antolatzaileek, eta "elkarguak sortu baserriarrentzat eta kaletarrentzat".

Ortu ludikoen lagapen berria ipini du martxan udalak

IURRETA **A.B.**

Bost urte dira udalak aisiarako udal-ortuak martxan jarri zituela. Orain, izan duten arrakasta ikusita, lagapen berri baterako prozesua abiatu dute. Eskaria urriaren 23ra arte egin daiteke, Bidebarrietako udal bulegoetan.

75 metro koadroko ortuen lagapena 2016ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 artekoa izango da, eta eskatzaileek barazkigintza ekologikoari eta instalazioen erabilera zuzenari buruzko sei orduko ikastaroan parte hartuko dute. Begirale bat egongo da instalazioen mantenurako, eta behar dutenei laguntzeko. Udalak erabiltzaileen esku utziko du premiazko tresna eta makineria. Informazioa: udal bulegoetan edo 94 620 12 00 telefonoan.

Askondo kalean aterpea eraikitzeke egitasmoa aurkeztu diete herritarrei

Parte-hartze foroan ekarpenak jaso, eta 2016an lanei ekitea gura du udalak

IURRETA **A.B. / J.G.**

Askondo kaleko egitasmoaren oinarritzko proiektua parte-hartze foroan aurkeztu zuen udalak, eguaztenean, herritarrek ekarpenak egin ahal izateko. Hurrengo batzarra urriaren

21ean egingo dute, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Urtebete eskas da Askondo kalearen alde bat oinezkoentzat itxi zutela. Izan ere, udalak egindako ikerketa batek azaleratu zuenez, kale horretatik egunean 900 ibil-

gailu igarotzen ziren; horietatik %80k ez zuen Iurretara joateko edo Iurretatik abiatzeko erabiltzen, lasterbide moduan baino. Totorikaguena alkateak azaldu duenez, Askondo urbanizatzeko emango duten hurrengo pausoren abantailak argiak dira: "Oinezkoentzako espazioaren erabilera bultzatzea eta herritarren bizi kalitatea hobetzea". Angel Basabe udal arkitektoa izan da aterpearen proiektuaren egilea. Basabek nabarmendu duenez, espazioa oso mugatua izanda, hainbat faktore kontuan hartu behar izan dituzte. Egitura arin bat aukeratu dute, gardena, baina argia tamainan pasatzen uzten duena. 300 metro koadroko azalera izango du, eta urte amaierarako proiektua erredaktatzea dute helburu, 2016an eraiki ahal izateko.



Aterpea eraikitzearekin batera, ingurua urbanizatu gura du udalak.

Gazteek etxea alokatzeko laguntzak eskatu ditzakete

IURRETA **A.B.**

Gazteek etxebizitza alokatzeko diru-laguntzak arautzen dituen baldintza-orria onartu du udalak. Iurretan errolatutako 18 eta 35 urte arteko gazteei zu-

Urriaren 31ra arte egin dezakete eskaria herrian errolatutako 18 eta 35 urte bitarteko gazteek

zenduta daude, eta urriaren 31 bitartean egin daiteke eskaria.

Iurretako udaletxean eta udalaren webgunean eskegita dago laguntzak eskuratzeko baldintza-orria. Ohiko etxebizitza izango den bizilekuaren alokairuaren zati bat ordaintzea dute helburu laguntza horiek. Iurretan egon behar da etxea.



Elorrioren antzera, beste herri batzuetan ere parte hartzen dute proiektuan, Zornotzan, esaterako. Lehiar Elorriaga

Elikagaien Bankuagaz zazpi bat familia lagundu dituzte, hileroko

Elikagaien Bankuko hitzarmena luzatu dute udalak, Kainaberak eta Eroskik

ELORRIO Markel Onaindia Elorrioren, Elikagaien Bankuaren proiektua beste bi urtez luzatzea erabaki dute udalak, Kainabera elkarteak eta Eroskik. Udalak adierazi duenez, batez beste, zazpi bat familia lagundu dituzte, hileroko, eta proiektuari eustea beharrezko ikusten dute.

Orain urte bi, Bizkaiko Elikagaien Bankuko kideek udalari abisu eman zioten, herriko familia batzuk Basaurin dagoen biltegira joaten zirela esanez. Horregatik, zerbitzua herrian bertan zelan eman aztertzen hasi ziren. Udalak egitasmoan par-

te hartzea proposatu zion Kainaberari, eta horrela eman zituzten lehen pausoak. Iaz, Eroski ere batu zen proiektura, 6.000 euroko ekarpena eginez. Lokal bat prestatu zuten, Galartzauria kalean, banaketa egiteko.

Udalak azaldu du batez beste kopuru bat egon arren, laguntza behar duten familiak ez direla betikoak hilerik hile. “Horrek argi uzten du, Elorrioren, badirela oinarritzko beharriak dituzten hainbat herrikide. Egoera honen aurrean, ekimen pribatua, publikoa eta herriekimena uztartuta, Elorrioko

Elikagaien Bankua babestea dagokigu”.

Kainaberako kideek, batez ere, atzerriko proiektuetan egiten dute lan, eta, beharrezana dagoen artean, lan egiteko prest daudela esan dute: “Familien egoera hobetzen joatea espero dugu, eta hitzarmen hau berriro berriztu beharrik ez izatea. Bitartean, lanean jardungo dugu”.

Eroskik ere aintzat hartu du proiektua: “Egoera ekonomiko zailak kaltetu dituen Elorrioko familia eta herritarrek laguntzeko tresna baliogarria dela-koan gaude”.

Abian da familian irakurketa eta euskara sustatzeko Kontuleku

Saioak euskaldunentzat zein erdaldunentzat dira



Kontuleku 3-4 urte bitarteko umeen familiei zuzendutako tailerra da.

BERRIZ A.Ugalde

Etxeko txikiekin kontuak irakurri, eta afektibitatea, komunikazioa, irudimena eta hizkuntza lantzea da Kontuleku proiektuaren helburua. Ekinena iaz jarri zuten martxan, Berrizen, eta, aurten ere, hainbat saio egingo dituzte urriaren 24tik abendura bitartean. Urriaren 16ra arte eman daiteke izena.

Kontulekuren helburuetako bat euskaraz gozatzeko esparru bat sortzea da, eta guraso euskaldunek zein euskaraz ez dakitenek parte hartu dezakete tailer berezietan. Euskara sailetik azaldu dutenez, guraso euskaldunekin saio osoa euskaraz egingo dute, eta erdaldunekin, berriz, umeekin dauden tartean

Sei zapatutan emango dute tailerra; urriaren 16ra arte eman daiteke izena udaleko Euskara sailean

euskaraz egingo dute, eta gurasoei berba egiteko tarteetan, gaztelaniaz: “Horrela, haurrek ikusiko dute gurasoek euskararik jakin ez arren, euskarazko jarduera horretan biak batera gustura ari direla”.

3-4 urte bitarteko umeen familiei zuzendutako tailerra da. Urriaren 24an hasi, eta saioak sei zapatutan egiteko asmoa dute. Informazio gehiagorako, Euskara sailera jo daiteke.

Nesken paleta partiduak ikusgai, bihar, herriko pilotalekuan

Goikoetxea, Agirre, Pradera eta Isasmendik jokatu dute jaialdian, besteak beste



Itsaso Pradera mallabiarra izango da jaialdiko protagonistetako bat.

GARAI M.O.

Garaiko aurtengo jailetako pilota jaialdia ezin izan zuten jokatu, euriaren eraginez. Horregatik, jaialdia zapatu honetan egitea pentsatu dute Trumoitte kultur elkarteak eta udalak. Tartean, nesken paleta partiduak ikusi ahal izango dira.

Pilota partiduak 17:30ean hasiko dira, eta lehenengoan, umeek parte hartuko dute. Bigarrenean jokatu dute neskek, paletaz; MPB zirkuituaren baitako neurketa izango da. Alde batetik, Goikoetxea eta Agirre egongo dira, eta bestetik, Pradera eta Isasmendi.

Amaitzeko, mutil bi arituko dira buruz-buru, biak ere abadiñarrak, gainera. Asier Aspuru eta Aitor Arabiourrutia izango dira, afizionatu mailan dabilzan pilotariak.

Kale argiteria aldatzen jarraitzen dute Berrizen

Iturritza eta Gabiola artean led argiak jarriko dituzte

BERRIZ A.U.

Apurka-apurka, Berrizko kale argiteria osoa berritzen dabil Berrizko Udala. Gutxiago kutsatu eta kontsumitzen duen led argiteria jartzeko laugarren fasea hasi du berriki: Gabiola eta Iturritza bitarteko kaleetan dabilza farolak aldatzen.

Guztira, 48 kale-argi aldatuko dituzte fase honetan: Gabiola kalean, etxeetako fatxadetan dauden argiak, Gabiola kaleko atzealdeko plazakoak, Geltoki enparantzakoak, eta duela gutxi berrizitutako Iturritza kaleko zati bateko argiak ere aldatuko dituzte. Lan horiek egiteko,

80.000 euro behar izan ditu udalak, eta aldundiaren 48.000 euroko diru-laguntza jaso du.

Aldaketa herri osoan

Herrigune osoan argiak aldatzeko, bizpauru fase falta direla azaldu du Orland Isoird alkatetik. Argiteria berriagaz, udalak, urtean, 14.000 euro inguru aurrezten dituela kalkulatu dute: “Ez da erraza kalkulatzeko, energia gutxiago kontsumitzen dugun artean argindarraren prezioa etengabe gora doalako”. Herrigune osoan led teknologia jarri eta gero, asmoa industria-guneetan aldaketak egitea da.

Kultura japoniarra eta mangaren mundua ekarriko ditu Mangamorek

Gaurtik domekara, 100 ekitaldi baino gehiago antolatu dituzte sei gunetan



Mitxel Etxebarria zinegotzia eta David Murillo teknikaria aurkezpenean.

ZORNOTZA Joseba Derteano Aurtan, 9. aldia egingo du Mangamore jaialdiak. Iaz, 12.000 bisitari izan zituen, eta urtea joan eta urtea etorri, Zornotzan gero eta txertatuago dagoen jaialdia da. Izan ere, zornotzarrak ikusle soil izatetik jaialdiko parte izatera pasatu dira, Mitxel Etxebarria zinegotziak eta David Murillo teknikariak aurkezpenean nabarmendu zuten.

Horren erakusgarri dira Yaiza Guerra zornotzarrak manga munduaren gainean antolatuko duen koadroen erakusketa, Ukabilak taldearen karate erakustaldia zein Luis Urrengoetxea kaleko

11 tabernek pintxo japoniarrak dastatzeko eskainiko duten aukera.

Aurtan, 100 ekitaldi baino gehiago antolatu dituzte, barikutik domekara. Gaiaren arabera, sei gunetan —pilotalekuan, Zelaia Zentroan, Zelaia parkean eta Luis Urrengoetxea ka-

lean— banatuko dituzte.

Musikari dagokionez, Bless4 lau anai-arrebek osatutako taldea etorriko da. Hemen ez dira ezagunak, baina Japonian izarrak ei dira.

Berrikuntza teknologikoen gunean —Zelaia zentroan—, robotikari buruzko tailer eta hitzaldiak antolatuko dituzte, lehenengoz. Batez ere, gazteei zuzenduta egongo dira. Hiru dimentsioko inpresora batekin erakustaldiak egingo dituzte, eta Okulus Rift izeneko betaurreko batzuek errealitate birtuala barru-barrutik bizitzeko aukera eskainiko dute.

Quidditch torneo ere nobedadea da. Ez du jatorri japoniarra, baina jaialdiaren filosofia-ekin bat datorrela uste dute. J. K. Rowling idazleak Harry Potterren mundurako asmatutako joko mota da. Hegan egiten duen erratz magiko barik, joko hori mundu errealerara moldatuta, sei taldek torneo bat jokatu-

ko dute. Gaztetxoei begirako eskaintzan ere badago nobedaderik. Umore Horia abilezia programa ospetsuko pare bat proba ekarriko dituzte; esaterako, segidan jarritako arrabol erraldioak pasatu guran, parte-hartzaileak zilipurdika erortzen ziren proba ezagun hura.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RÍOS
SQ-2D



Gizartea aurretik

Aurreko larunbatean, udaberrian Uholde Laranjarekin gertatu bezala, Durangoko herriak elkartasuna eta laguntza erakutsi zizkien Angelman sindromearen eragina duten familiei. Ekitaldi hauetako jai-giroak ez digu ahaztuarazi behar gaixotasunaren jatorria. Gobernuetaren esker, gastuen eta irabazien ardura baino ez duen industria farmazeutikoaren esku dago ikerkuntza medikoa.

Horrez gain, zientzialari bikainak ditugu, baina atzerrira irteten behar izaten dute ikerketa horiek aurrera eramanez ahal izateko, eta gehienetan, kapital pribatua erabiltzen.

Horren guztiaren eraginez, gutxiengo gaixotasunen eraginpean bizi diren familiak babesik gabe uzten dira. Familia horiek, beharrezko tratamendu gehien kargu egiteaz gain, ikerketarako finantzazioaz ere arduratu behar izaten dute.

Gizarte moduan, ausart jokatzeko eskatu behar diegu gure politikariei, industria indartsu horri aurre egiteko eta konpromiso sozial eta etiko handiagoa exijitzeko. Gainera, eragiten duten minaren arduradun izatea ere exijitu behar zaie. Bestalde, aipamen berezia egin nahiko genioke, besteak beste, Talidominaren eragina duen kolektiboari. Gizarteak, beste behin ere, bere elkartasuna eta eskuzabaltasuna agertu ditu, gobernariaren aurretik dagoela erakutsita, jai-giro alai eta dibertigarrian, San Fausto jaien bezperatan.

Herriaren Eskubideatik San Fausto jai zorientsuak igaro ditzazuen opatzea aprobetxatu nahiko genuke, jai eta ospakizunak errespetu eta pluraltasun giroan bizi ditzazuen, indarkeriarik eta erasorik gabe.

**Erredakzioan itzulia.*

Anbulatorio inguruko lanak martitzenean hasiko dituzte

Bizileku, plaza eta biribilgune berriak egingo dira



Obren ostean ingurua zelan geratuko den erakusten duen infografia.

ZORNOTZA J.Derteano

Anbulatorio berriaren inguruko kaleei eta inguruari eragingo dieten urbanizazio lanak martitzenean hasiko dituzte. Hiru obra nagusi egingo dira, 1.915.000 euroko aurrekontuagaz.

Kaitana inguruko lanek 7 hile inguru iraungo dute, 675.000 euroko aurrekontuagaz. 1.600 metro karratuko plaza berria egin eta azpiegiturak berrituko dituzte. Proiektuak etxebizitzaren eraikin bi ere aurreikusten ditu; batean, babes ofizialeko 30 bizileku joango dira; bestean, 32 etxebizitza libre.

San Juan kalea ere eraberrituko dute. Kalbario kaleko lotunean biribilgunea egingo dute, zirkulazioa arindu, eta autoen joan-etorria erregulatzeko.

Oinezkoentzako pasabideak egin, eta azpiegiturak berrituko dituzte. Lanek 5 hileko iraupena eta 440.000 euroko aurrekontua dute.

Bestalde, San Juan eta San Miguel kaleen arteko lanak abenduan hasita itxaroten dute. 800.000 euroko aurrekontua du. Kale bi horien arteko tarteari bulebar nortasuna emango diote, oinezkoen joan-etorria lehenetsiz. Orain hiru erreil daude eta bi geratuko dira, eta espaloak asko zabalduko dituzte, zuhaitzekin pasealekua sortuz.

Lanak amaitu arte, hiru autobus geltoki aldatuko dituzte. San Juan kalekoak San Miguelera aldatuko dira, eta San Miguelkoa —Lemoarako noranzkoan— Nafarroa kalekora.

ALBERDI
HARATEGIA

Askatasun etorbidea, 1 DURANGO - Tel.: 946 817 658
Sabino Arana, 1 ZORNOTZA
- Zornotzara ere heldu gara-

ETXEKO TXORIZO
ONENAREN SARIA

2014-2015
VILLA DE BILBAO

ODOLOSTE
ONENARI SARIA

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN
MUNDUKO TXAPELKETAKO
IRABAZLEA
2014 ELORRIOKO
BUZKANTZA JAIO
ODOLOSTE ONENA

“Lagunartean elkarrekin abestuz ondo pasatzea da gure asmoa”

Abestea gustuko duten sei izurtzarrek lehenengo klasea izan dute asteon



Mila Rodriguez irakasleak pianoagaz lagunduko ditu abestiak.

Mainondoko futbol zelaian belar artifiziala jarri gura dute

Harezkoa da, eta belar artifiziala gordeta dute

OTXANDIO J.D.

Mainondon harezko futbol zelai bat dago, pilotalekuaren ondoan. Denentzat zabalik dago, eta, esaterako, Vulcano futbol taldeak bere entrenamendu saioak egiteko erabiltzen du. Zelai horretan belar artifiziala jartzea Vulcanoren aspaldiko eskaria da. Udalak badauka belar artifiziala gordeta, eta

berau jartzeak eskatuko lituzkeen gastuak eta eskakizunak aztertuko ditu, ondoren Vulcanogaz auzolanean aritzeko helburuagaz. Horrela azaldu zuten azken udalbatzarrean. Gordeta duten belar artifiziala Durangoko Tabira futbol zelaikoa zen. Durangoko Udalak eman egin zien, berrerabilpena futbol zelai batean egiteko baldintzagaz.

Egur sorta gura dutenek urriaren 26ra arte eman dezakete izena

OTXANDIO J.D.

Udalak bere jabetzako lurretan dagoen egur materiala erosteko aukera eskaintzen die herriarrei, urtero. Banaketa antolatzeke, egur sortak jaso nahi dituztenen kopurua jakin behar dute. Horrela, 2016an egur sorta bat nahi dutenen kopurua eza-gutzeke, izen-ematea zabaldu dute. Interesa duten herriarrek urriaren 26ra arte eman deza-

IZURTZA J.Derteano

Izurtzako liburutegia abestea gustuko dutenen topaleku bihurtuko da, martitzenero. Ez dago solfeorik eta musikarako jakintza sakonik izan beharrik: “lagunartean abestuz elkarrekin ondo pasatzeko gogoia izatea” da baldintza bakarra, parte hartzaileen esanetan.

Momentuz, sei emakume batuko dira, martitzenero, 18:30etik 19:30era. Denak izurtzarrak dira: Puri Alzola, Ludi Verduras, Cristina Mora, Amaia Murgoitio, Rebeka Barandika eta aste honetan bertaratzeko modurik izan ez duen Toñi Jimenez. Denek gustuko dute abestea, baina antzerako lehen esperientzia dute.

Lehen klasean jatorri fantzitarra duen Frere Jacques haurrendako abestia eta Xabier Leteren Salbadorren Heriotzean ezaguna kantatu zituzten. Rancherak, euskal kantu tradizionalak zein gaur eguneko musika, denentzako atea zabalik dute.

kete izena, Otxandioko udalartxean.

Sortak lortzeko modu bi

Egurra eskuratzeko modu bi daude; basora bila joatea, edo etxean bertan jasotzea. Lehenengo aukeraren prezioa 160 eurokoa da. Basora bertara joan, eta udalak markatutako arbolekin nork bere sortak egin beharko ditu.

Baina, gura duten herriarrek apeatan ebakita jaso ditza-kete egur sortak etxean. Bigarren aukera horrek baliabide gehiago eskatzen dituen, garestiagoa da: 460 eurokoa izango da prezioa.

> DURANGALDEA ASTEON

Ortugintzarako ikastaroa abian

MAÑARIA > Udalak ortugintzarako eta lorategietarako ikastaro baliagarri bat antolatu du. Hain zuzen ere, produktu fitosanitarioak erabiltzeko baimena lortu ahalko da. Urriaren 19an hasiko da, eta zazpi egunez jardungo dute. 36 euro balio du, eta 946 818 998 telefono zenbakian eman daiteke izena.

2.100 marihuana landare topatuta

IURRETA > 2.100 marihuana landare eta 2.300 aldaxka topatu zituen Ertzaintzak, martitzenean, Iurretako pabilioi batean. Operazioa udaltzainen laguntzari esker ere gauzatu zen, Ertzaintzaren arabera. Ertzainek 36 eta 54 urte arteko hiru lagun atxilotu zituzten, landaketagaz lotura dutelakoan.

Lodosarako irteera antolatu dute

GARAI > Nagusien elkarteak Lodosarako irteera antolatu du eguenerako, hilaren 15erako. Piper enpresa bat bisitatu-kote dute lehenik, eta gero, Calahorrako merkatua. Bazkaria ere egingo dute, hango produktuak dastatzeko. 25 euroan eman ahal da izena, hilaren 13 aurretik, Herriko tabernan.

Iritzia

Umeekin ere erabakiko dute udal aurrekontua

10.000 euro inbertituko dituzte umeen beharrianetan

MAÑARIA M.O.

2016rako udal aurrekontuaren lanketa hasi dute Mañarian, eta azken urteetako esperientziari jarraituta, aurrekontuaren zati bat era parte-hartzailean garatuko dute. Gainera, umeekin ere erabakiko dute hurrengo urtean zer proiektu burutu udalerrian. Guztira, 25.000 euroko partida bat egongo da herriarren iritzia eskura, eta horietatik 10.000 umeen beharriaz-nei begira inbertituko dituzte.

Umeen partaidetza indartzea da udalaren helburua: “Komunitateko partaideak diren heinean, erabaki esparruetan egoteko eskubidea daukate, eta

beraien parte-hartzea bermatu behar dugu”. Umeen interes eta nahiak ezagutzeko, tailer bi egingo dituzte, urriaren 23an eta azaroaren 6an. Abenduaren 18an, ondorioak azalduko dituzte umeek, jendaurrean.

Bestalde, herritar guztiei ere proposamenak egiteko gonbita luzatu die udalak. Urriaren 26a baino lehen, udaletxera eraman beharko dira banatu dituzten fitxak, edota bestela, *partaidetza.manaria@bizkaia.org* helbidera ere bidali ahal dira. Gero, batzar zabala deituko dute abenduaren 11rako, eta udal teknikariek batera proposamenak aztertuko dituzte.

Auzo batzarrak egingo dituzte, urrian eta azaroan

Udalak auzoetako beharrak ezagutu gura ditu

MALLABIA Jone Guenetxea

Mallabiko Udal herriko auzotako bizilagunekin batzartuko da, urrian eta azaroan, beraien beharrak ezagutzeko. Ildo horretatik, bost batzarretarako hitzordua jarri dute auzoetako elkarteetan eta Kontzejuzarren, 19:30ean. Lehenengo bilera Berano eta Arandoñoko auzokideekin egingo dute, urriaren 15ean. Geria eta Longakoekin urriaren 22rako jarri zuten hitzordua. Areitio, Aitxu, Osma eta Zengotitakoekin, oster, urriaren 29an elkartuko da udala. Goita eta San Martineko auzokideek azaroaren 5ean izango dute bilera, eta herrigu-

nekoak oster, azaroaren 12an batuko dira.

Lehenengo bilera

Berano eta Arandoñoko auzokideekin egingo du udalak, urriaren 15ean

Gai ordena

Auzotarren beharrak ezagutzeaz batera, hainbat gai mahai-ganeratu gura ditu udalak. Babes pertsonalerako eta segurtasunerako neurriak hartzea, auzotaxia eta baserrien izenak GPS bidez izendatzea.



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

J. Manuel Cembellin (Sopela, 1959) | Eleiz Museoko eta 'Todos los Apellidos vascos' ETBko saioko historialaria

“Argi zuen andrea zela, andre erakunde baten; ez zutela behar eurengan aginduko zuen gizonik”

“Margarita Maturana. O Como cambiar el mundo desde Berriz” hitzaldia emango du, urriaren 14an, 19:00etan, Durangoko Museoan



> BERBAZ Aitziber Basauri
Gerediagak antolatutako ‘Historia astinduz’ hitzaldi zikloaren barruan eskaini du berbal-dia Cembellinek. Berrizko Mesedeetako komentuko museo-ara bisita ere antolatu dute.

Bere garaiari aurreratua izan zen Margarita Maria Maturana? Garaiari oso aurreratua esango nuke. Klausurako komentuan sartzea aukeratu zuen bizitzan, eta, hori misio-institutu bihurtu zuen. Komentuan aurkitutakoa ez zeterren bat munduan parte hartzeko bere ikuspuntuagaz, eta apurka-apurka aldaketak sartu zituen. Argi zuen, gainera, emakumea zela, emakume erakunde baten, eta ez zutela behar eurengan aginduko zuen gizonik. Autonomiaz jardute aldera bideratu zituen komentuen eraldaketa eta misio institutuaren sorrera. Nahiko abangoardista, 1915-1920an kokatuz gero.

Pertsonen duintasuna, andrena batez ere, aldarrikatzen zuen. Ebangelioaren interpretazio propiotik abiatuta, gizartean eragiteko edo laguntzeko era bat

“*Durangaldeak sortutako pertsonaia bitxienetarikoa bat da Margarita Maria*”

sustatu gura zuen, eta ez bakarrik urrunera joanda: Gasteizko langile-auzo batean eskola bat sortzeko jasotako proposamena ere benetako misiotzat hartu zuen. Oso argi zuen misioetara joatea, ez zela txinatarrak kristau egitera joatea. Bokazioz egin zuen lan andrekin, baina, egia da, mojek emakumeekin baino ez zutelako lan egiten.

Emakumeei laguntzea oso garrantzitsua zen berarentzat. Oso argi zuen hori. Hemen gutxietsita zeudela ikusten zuen, eta are gehiago Txinan edo Mikronesiako irletan. Nahiko ipurtarina zen bera, eta neskentzako eskolekin hasi ziren arren, segituan sartuko ziren proiektu berriekin: anbulategiak, umezurtegiak... hor mutilak ere egon ziren. Baina, gehienbat, andrekin egin zuten lan.

Klausurako komentua zena mundura zabaltzea lortu zuen. Klausurako komentua 1550ean sortu zuten, Berrizko parroko batek testamentuan utzitako diruagaz. Eskola sortu zuten, XIX. mende bukaeran, klasurako komentu izateari utzi gabe. Margarita ikasle lez sartu zen lehenengoz, ahizpa bikiagaz.

Gero sartu zen moja. Oso sinisdunak ziren bi ahizpak. Eskolan batera sartu ziren, eta moja ere bai. Hori bai, erlijio-ordena desberdinetan, batera egonda txikizka ibiliko zirela uste zutelako, eta, elkarrengandik banatzea Jainkoari egindako eskaintza dela sinistuta.

Mutil gazte batzuengandik al-dendu gura izan zituen amak... Bikiak gorteatzen ari ziren nautikako bi ikaslerengandik urruntzeko bidali zituen amak Bilbotik Berrizera. Gero, ez zute mutilotaz ezer jakiterik gura izan. Moja sartu ziren biak.

Mesedeetako Misiolariak sortu zituen Margarita Mariak... Misioetara joateko, komentutik

“*Argi zuen misioetara joatea ez zela txinatarrak kristau egitera joatea*”

irteteko lehen pausoak 1915ean eman zituzten. 1926an, klausura utzi, eta misioetara joateko lau urteko baimena lortu zuten Erromatik. Ordura arte, misioei laguntzen aritu ziren (gauzak lortu, dirua, animoak emateko idatzi...). Segituan hasi ziren lanean, eta lau misio sortu zituzten, Txinan, Japonian eta Ozeano Barean. Klausura utzi, eta lan horregaz jarraitzeko, Misio Institutua sortzeko eskaria egin zuen Margarita Mariak.

Eta lortu zuen. 1930ean sortu zen Misio Instituta. Hala ere, Erromak baldintza tranpa jarri zien: komentuko 94 mojak ados egotea. Lortu zuen Margarita Mariak. Nahiko traba jarri zizkieten, mesedeetako gizonen, batez ere. Jesuitek, aldiz, asko lagunduko zien.

Misioetarako bidaia odisea izango zen garai haietan.

Itsasontzian joaten ziren misioetara. Bidaia oso garestiak ziren, eta komentua hipotekatzera heldu ziren. Urrunen, Bilbon egondako Durangaldeko bost mojek hiru hileko bidaia egin zuten, Txinara: euskaraz zekiten, gaztelania pixka bat... Momentu gogorak bizi zituzten, heldu, eta gerra hasi zen-eta. Baina, gutunek konpromiso itzela erakusten dute; etsipenik gabe. Mirestekoa da. 19 urteagaz edo gazteago sartu ziren batzuk komentuan, ez zuten besterik ezagutzen.

Komentuko museoan ikusi daiteke hori guztia.

Hainbat idatzi eta argazki dau-de. Kuriosoa da Txinako eskola haietan egindako jaietan umeak ezpatadantza egiten ikustea. Garai haietarako, ezohiko bizi-modua izango zutelakoan nago.

Bisita gidatua antolatu dute.

Horrela da. Margarita Maturanaren bizitza eta misioetan egindako lana erakusten da museoan. Baita Berrizko Mesedeetako Misiolarien gerora egindako lana ere. 1950eko hamarkadan, AEBn eta Mexikon ere finkatuko dira; 60ko hamarkadan Erdialdeko Amerikan, Hego Amerikan eta Afrikan. Erlijioaz haratago, lan sozial oso garrantzitsua egiten dute, eta Margarita Mariak utzitako legatua dela oso argi dute.

Ezagutzen ez dugun zerbait azalduko duzu?

Bilbokoa zen arren, bizitza aktibo guztia Berrizen egin zuen, eta eskualdeak sortutako pertsonaia bitxienetarikoa da. Barne-eztabaida etengabea zegoen: pausoak eman gura zituen, baina, ezin zuen. Bitxia izan daiteke, erlijiosoei ikus-pun oso laua, lineala, dugu-eta batzuetan. Pertsona moduan aberatsa eta interesgarria da; erakargarria izan daiteke.

Bisita gidatua:
urriaren 17an, 12:00etan.
Informazioa: 94 681 80 66
telefonoan edo
ejardunaldia@gmail.com-en

Durangaldeko musikari gazteen lehiaketa antolatu dute, Plateruenean

Kanta bana aurkeztu beharko dute Lokaletik At! lehiaketan parte hartu gura duten musika taldeek



Platerueneko aldagelan egin zuten prentsaurrekoa Goiatz Pelaezek eta Aitor Lopezek.

> MUSIKA Itsaso Esteban
Goiatz Pelaez Plateruena kafe antzokiko kultur teknikariak eta Aitor Lopez Durangaldeko

Amankomunazgoko presidentek aurkeztu zuten, eguaztenean, Lokaletik At izeneko Durangaldeko musika taldeen

lehiaketa. Azaroaren 29ra arte eman daiteke izena, eta musika tresneria erosteko 500 euroko saria dago jokoan.

Lehiaketan parte hartu gura duten musikari gazteek lehiaketarako beren-beregi sortutako kanta bat aurkeztu beharko dute; kantaren letra eta audioa bidali beharko dute Plateruenera (kultura@plateruena.net helbidera), azaroaren 29 baino lehen.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintza nagusia, kantaren letra egilea 14 eta 18 urte artekoa izatea da, taldekide bat, gutxienez, adin-tarte horretako izatea da.

Musika arloko profesionalak eta musikazaleek osatuko duten epaimahai batek hautatuko ditu aurkezten diren lehiaketaren zuzenekoan joko duten taldeak, eta abenduaren 3an egingo dute publiko zeintzuk taldek egingo duten Durangaldeko Lokaletik At! musika lehiaketan aurrera. Abenduaren 19an izango dira zuzeneko horiek, Plateruenean, eta bertan erabakiko da musika tresneria erosteko 500 euroko saria zeinentzat izango den.

2012. urtean, Lokaletik At! izenpean abiatu zuten, Plateruenean, Durangaldeko musika tal-

de gazteei Kafe Antzokian ari zeko aukera eskaini gura zuten ekimena. Eta ekimen horren izen eta helburuekin jarraitzen du musika lehiaketa honek. Zuzeneko batek dakarren guztia ezagutzeko aukera izan dute ekimen horri esker, Durangaldeko musikari gazteen talde askok. Platerueneako aretoko soinu probak zelan egiten diren ikasi dute, esaterako.

Lehiaketaren baldintza nagusia, kantaren letra egilea 14 eta 18 urte artekoa izatea da

Gazteen artean, eta musikari lotuta, euskararen erabilera bultzatzea da ekimen honen helburua

Gazteen artean, eta musikari lotuta, euskararen erabilera bultzatzea da ekimen honen helburuetako bat. Besteak beste, horrexegatik erabaki du Durangaldeko Amankomunazgoak ekimena diruz laguntzea. Aitor Lopez presidentearen berbetan, “talde gazteei aukera berri bat emateko bidea da, oso ekimen interesgarria”.

Azaroko Begira Photo jaialdirako giroa berotzeko, herritarren erretratuak, Durangoko jaietan

Ros Boisier argazkilari txiletarrak ‘Gara’ proiekturako argazkiak egingo ditu

> ARGAZKIGINTZA I. Esteban
San Fausto egunean, urriaren 12an, oraindik zehaztu barik duten Durangoko jaiguneko leku batean burutuko dute ekimena. Klean dabilen jendeari erretratuak egingo dizkiote, klean ipiniko duten estudio fotografiko batean. Ros Boisier argazkilari txiletarraren *Somos* izeneko proiektuaren barruko ekimena izango da Durangoko jaietakoa.

Jaietan herrikideei argazkiak eginez kolaboratzera gonbidatuko ditu eskualdeko hainbat argazkilari, astelehenean, Ros Boisierrek.

Herritarrei egindako argazki horiekin, eta Begira Photo jaialdiaren barruan, Merkatuan erakusketa ipiniko dute, azaroan. Azaroaren 10ean inauguratuko

dute Durangoko jaietan egindako argazkiekin osatutako instalazio fotografiko hori.

Lurraldetasunari eta migrazioei buruz gogoeta bultzatzeko helburuz abiatutako proiektua da *Somos*. Hainbat herrialdetan jendeari egindako erretratuak oinarritzat dituena.

Klean dabilen jendeari erretratuak egingo dizkiote, argazki estudio inprobisatu batean

Azaroaren 10etik 29ra Durangon izango den argazkigintzaren inguruko Begira Photo jaialdirako giroa prestatzen joa-

teko antolatu dute urriaren 12ko ekimen hau.

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere, argazkilarien berbalak, mahai-inguruak, zein euren lanen erakusketak hartuko ditu Durangon, Begira Photok.

Argazkigintzaren narratioba, kritika, zabalkundea eta merkatua, objektibotasuna eta orijinaltasuna hartuko dituzte, besteak beste, aurten, Euskal Herriko zein nazioarteko argazkilari gonbidatuek berbagai.

Durangoko Arte eta Historia Museoan, berriz, aipaturiko Ros Boisier-en *Gara* erakusketaz gainera, jaialdiak ekarritako beste bi erakusketa ere egongo dira ikusgai: Pablo Trenor-en *Dena da iturri*, eta Jon Gorosperen *Leihoen abiadura*.



Udaletxeko plaza, 2013ko Begira Photo jaialdiko egunetako batean.

> ZINEMA Itsaso Esteban

KINE zineklubak antolatuta, KINE Rallyaren lehenengo edizioa egin zuten, joan zen zapatuan. Film laburren lehiaketa. Zuzen-zinema izeneko taldearen *Amore* lanak jaso du 500 euroko lehenengo saria, eta “oso oso pozik” daude antolatzaileak. Lehenengo edizioan dena ondo atera zelako, eta parte-hartze handia izan delako. Denera, zortzi lan aurkeztu dituzte lehiaketara.

Bariku arratsaldean egin zuten lehiaketaren aurkezpena, eta 25 ordu eman zizkieten parte-hartzaileei film laburrak egiteko. Gai libreagaz jardun ziren zinezaleak. Zapatu iluntzean entregatu zituzten parte-hartzaileek filmak, eta domeka eguerdian egin zuten emanaldia eta sari banaketa.

Zinekluba ere martxan

Zinezale talde horrek antolatuta, ikasturteko zineklub zikloari ere ekin diote, aste honetan. *Zetaren bidea* zikloa egingo dute hil honetan, Japoniako zinemaren laginak ardatz hartuta. Martitzenean, *Retratos de familia* animazioko filma eman zuten, eta 13an eta 27an, *El viento se levanta* eta *Aguas tranquilas* emango dituzte, hurrenez hurren. Zornotza Aretan, martitzenetan, 20:00etan, izaten da

Parte-hartze handia eta giro polita KINE film lehiaketan

Zornotzako film laburren lehiaketaren lehenengo edizioa egin zuten zapatuan

hitzordua, eta hileko 9 euroko bonua dago aukeran.

Lau urte dira Zornotzan KINE Zinekluba elkarte kulturala sortu zutela. Galduta zeu-

den Zornotza Aretoko martitzeneko emanaldiak berreskuratzeko helburuagaz elkartu ziren dozena erdi lagun. “Bestelako zinema mota bat ikusteko auke-

ra bermatu gura genuen”, dio Oihane Amantegi kideak. Gaur egun, dozena bat lagun ibiltzen dira antolakuntzan, eta ikuslego finkoa daukate.



Zortzi film labur aurkeztu zituzten KINE Rallya lehiaketaren lehenengo edizioan.

Martitzenean hasi zuten AIKOtarrek ikasturtea

Plateruenean egingo dituzte, aurten ere, saioak

> DANTZA

Ikasturte honetan AIKO taldeagaz euskal dantza tradizionalak ikasi gura dutenek badaukate aukera izena emateko. Aurreko urteetan bezala, astero ordu eta erdiko saioak egingo dituzte, Plateruenean. Ikasturte honetan ere, dantzan ikasten hasi gura dutenentzat zein hobetu gura dutenentzat luzatuko du eskaintza AIKOk. Betiere, dantzan “natural eta lasai” jardutea eta ondo pasatzea ardatz duen AIKOn estiloan.

Izen-ematea www.aikotaldea.eus webgunean egin daiteke, edo baita 634 423 539 telefono zenbakira deituta ere.

Dantza eta musika tradizionalari lotutako bestelako ekimenak antolatzen hamarkada beteko du AIKOk, aurten. Hamar urteotan 4.000 lagunek parte hartu dute taldeak Euskal Herriko hainbat lekutan eskaini dituen ikastaro, tailer eta erromerietan. Urtemuga ospatzeko, hainbat hitzordu antolatuko dituzte, aurten.

‘The mulberry house’ dokumentala, Elorrion

Kultur etxean eskainiko dute filma, eguaztenean

> ZINEMA

Urriaren 14an, 19:30ean, izango da Elorrioko Hilean Behin dokumental zikloaren urriko emanaldia. *The mulberry house* filma eskainiko dute. Yemen, Erresuma Batua, Siria, Egipto, eta Arabiar Emirerri Batuen 2013. urteko ekoizpena da.

Sara izeneko emakumea protagonista duen istorioa da *The mulberry house*. Sarak 30 urte ditu; aita yemendarra du, eta ama eskoziarra. Hamazazpi urte bete arte, Yemenen bizi da

Sara. Jaioterrian deseroso sentitzen dela-eta, Eskoziara alde egingo du, amaren bizilekura. Hamar urte geroago, hogeita zazpi urteagaz, sorterrira bueltan, utzi zuenagaz zerikusirik ez duen herrialde bat topatuko du Sarak: Udaberri Arabiarraren iraultzan murgilduta dagoen herrialdea.

Zinemagintza ikasketak Edinburgoko Arte eskolan egin zituen Sara Ishaq yemendar gazteak zuzenduriko lana da *The mulberry house*.

GEURE DURANGALDEA

JON IRAZABAL

Gerediagako kidea

**Beitia & Etxezarreta**

Fausto Antonio Beitia Agirre, Gregoriorren eta Katalinaren semea, 1790eko urriaren 10ean jaio zen, Durangon, eta bertan hil zen, 1855eko urriaren 6an. Datorren eguaztenean, 325 urte beteko dira jaio zela, eta idazten nagoen egunean bete dira 160 hil zela.

Bere herriko iragana eza-gutzeko afizioa izan zuen, eta *Noticias históricas de la Noble y Leal Villa de Tabira de Durango* koadernoan idatzi zuen. Bera hil ondoren, Manuel Andres de Isusik koaderno hura Ramon Etxezarretaren esku utzi zuen. Ramon Etxezarretak, gaur egun Durangoko Museoa kokatzen den jauregiko etxaunak, ohar haiek orraztu eta gehitu zituen. 1868an, Tiburcio Astuy zuzendararen ekimenez, Bilboko Euscalduna egunkarian argitaratu zen. Liburua lortzea oso zaila zen, eta eskuz edo makinaz idatzitako kopiak erabiltzen ziren.

1967an kaleratu zituen Gerediagako elkarteak lehen argitalpenak. Iurretako bazkideek presatutako *Abestiak* liburuxka, eta Leopoldo Zugazak eta Jesus Astigarragak bultzatuta Beitia eta Etxezarretaren liburua. Entzunda daukatenez, Astigarragatar familiak zeukan ale bati esker egin zen edizioa hau. Beitia liburua oso ondo saldu zen, eta zabalkunde handia izan zuen. Edizioko azken aleak 1980 inguruan, Astolako etxeko hezetasunak kaltetuta, bota beharra izan genuen.

Jendeak liburua eskatzen zuen, eta interesgarri ikusten genuen Durangoko historiaren klasiko hura berreskuratzea. Cafés Baqueren babesarekin berrargitaratu genuen, 2002an. Historiagile askorentzat ez da izango liburu handi bat, baina niretzat behintzat, koaderno hartan idatzitako oharra oinarritzakoak dira XIX. mendeko Durango ezagutzeko.

Durango Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDETAN MENU BEREZIAK

Pub Quiz 6
Friday 23rd October, 9:30 pm
Plateruena-Antzoki in Durango

URRIAK 23
21:15etan
DURANGO'S PUB QUIZ
LEHIAKETA

URRIAK 25
18:00etan
KANTALDIA
KANTALDIA

URRIAK 28
19:00etan
PLATERUENAREN URTEURRENA
JAIALDIA

En un lugar del Quijote
Ron Lalá y Compañía Nacional de Teatro Clásico
Urriaren 11an 20:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUNEA
SANAGUSTIN UDALA

Ohituren indarra (I / II)

> PRAKAGORRI

Edozein egitasmo aurrera atera nahi denean programazioa ezinbesteko jarduera izaten da eta ikasketez hitz egiterakoan, gainera, oso mesedegarri da. Programazioak onura asko dakar baina ikasturteak bere ibilbideari hasiera eman dion une beretik hasi eta egun arte gauza onerako programazio gutxi ikusten da ikasleengan ikasketen inguruan.

Azaroa gainean dago eta azaroarekin batera lehen ebaluazioa berandu baino arinago etorriko da eta orain programaziorik ez izanaren ondorio datorren hilabeteko aztoratze, egonezin eta artegatasuna izango dira. Denbora lekuko.

Programazioak helburuei buruzko alde aurreko oldozmena egitea dakar, helburu horietara eramango gaituzten jarduera motak aztertzea, lehentasunak ezartzera eta helburuak lortzeko egin beharreko jardueretarako dugun ordu kopurua antolatu eta ordu horiek banatzeko irizpideak aztertu eta ezartzera alegia.

Aldez aurretik ezarritako programazioa bete izanak inprobisaziorako aukerak baztertu edo/eta eragotzi egiten ditu. Horrela jarduteak, etengabe, egunaren joan-etorrian agertuz joaten diren ustekabeko hainbat ekintza eta gertaerei erantzunak ematera behartuta egotea saihesten du eta, ondorioz, aurretiaz ezarritako programazio jakin baten ezarritako jardueri lehentasuna emanez inprobisaziori ez zaio aukerarik uzten. Eraginkortasunez jarduterik nahi bada, inprobisaziorik ez.

Programazioak, bestalde, ez du inoiz kate astun eta onura baino kalte gehiago dakarkigun jarduerak izan behar. Programazioa tresna bat da. Tresna erabat baliagarria. Ikasleek euren ikasketak egokitasunez garatu eta aurrera ateratzeko egin beharrekoa duten ahalegina eraginkortasunez egiten lagunduko dien tresna.

Ikaslerik gehienek ez dakite ikasketarako programazio baten baliagarritasuna zein den. Eta neurri baten ezjakintasun hori uler daiteke inork ez baitie ikasleei ganoraz programaziorik egiten irakatsi. Igarotako asteen batxiler ikasketetan dabilen ikasle batek bere programazioan egun bakoitzerako ezarrita dituen jarduerak ezin zituela gutxitan besterik bete adierazten zidan, hori horrela izanik plangintza egiteak zer zentzu duen galdetuz.

Egia esan, idatzizko programazioa egiteak, ikasketari bu-

ruzko atal asko argitzea dakar eta ikasketarekiko norbere inplikazio pertsonala ere askoz nabarmenagoa edota handiagoa izaten da.

Baina, arlo horiek gorabehera, gorago aipatutako ikasleak bere buruari asteko egun bakoitzerako alde aurretik ezarritako zereginak zeintzuk izango diren askatasun osoz erabaki eta ezarri ondoren, bere programazioko helburuak betetzeko gai ez dela gogoan hartuz, errealtate horren zergatia, ezer gehiago egiten jarraitzeari ekin baino lehen, sakon aztertu beharko litzateke.

Edozein programazioaren helburu nagusia erabilgarri dugun denbora era metodikoan kudeatzen jakin, ikasketa prozesua erraztu, sinplifikatu eta denbora aurreztean datza, baina inolako mekanikotasun zurrunean erori gabe. Ikasketak era sistematikoan egin izanak, ohiturak, landuz, sortzen joatea dakar eta bestetik ahalegina eta denbora aurrezten irakasten du.

Gutariko bakoitzak gure izaera eta nortasuna osatzen dituzten berariazko jarduerak eredu batzuk ditugu. Gure bizitzan azaltzen zaizkigun egoeretariko bakoitzak jarduerak eredu berezi eta desberdindua abiarazten du.

Gizartean ditugun harremanetan [semea, lankideak, adiskideak etab,] gure portaera aurrean dugun pertsona bakoitzari egokitutakoa izaten da, baina aurki gaitzekkeen egoeren arabera era desberdinez jardun eta erantzun ahal izateko ez dugu, ohitura baitugu, jardun behar dugun era edota moduari buruzko ezelako gogoetarik egin beharrik.

Ohitura errepikapenez gaudutako jarduerak eredu izateaz gain, gure arreta kontzienterik behar ez duen ekimena da. Ohiturek, estimulu berdinen aurrean errepikapenez eta gure kontrol kontzienterik gabe azaltzen direnez gero, gure eguneroko zereginaren eraginkortasun maila zehazten dute, gure bizitzako elementu oso indartsuak izanez.

Ohiturak, barneratutako sinesmenetan oinarrituta, gure azpikontzienteak sortutako jarduerak eredu errepikatuak dira. Gizakiok une oro jasaten ditugun kanpo estimuluen aurrean errepikakorrak diren jarduerak ereduak azaltzen ditugu.

Aipatu jarduerak eredu horietako askok era sistematikoan porrotera, atsekabera, zorionik ezera edota eraginkortasunik ezera garamatzatela jakinda, gizakirik gehienek ez dute eza gutzen erantzun horiek akti-

batzen dituzten mekanismoak eta, garrantzitsuagoa dena, are gutxiago ohitura horiek nola aldatu daitezkeen.

Edozein egoeraren alde ezezkorrean kokatzea, pazientzia gutxiko gizakia izatea, irtenbidea aurkitzen saiatu baino arazoan arreta gehiago jartzea, besteek egiten dutenaren arabera jardutea, lanak euren premiaren arabera lehenestea, erabakimenik gabe aritzea, etab. pertsona eraginkorrak ez izatera garamatzaten norberaren kalterako besterik ez diren jarduerak eredu etariko batzuk ditugu.

Jarduerak eredu etariko batzuk erantzun emozional jaki-

Ohiturak, barneratutako sinesmenetan oinarrituta, gure azpikontzienteak sortutako jarduerak eredu errepikatuak dira.

nak daramatzate eta, batzuetan, egoera okerrerratu besterik ez dute egiten.

Beldurra, segurtasunik eza, gogorkeria, estresa edota buru-blokeoa dira era automatikoan azaldu eta jarduerak eredu jakin baten hondamendi maila handitzen dituzten emozioetariko batzuk.

Bestalde, ohiturak gure azpikontzienteak sortuak direla aipatu dugu lehenago. Gure burmuinak ezaugarri eta gaitasun erabat desberdinak dituzten bi atal ditu: atal kontziente eta atal azpikontziente.

Lehena gure sormenaren arduraduna izateaz gain plangintzak egin, helburuak ezarri, emaitzak baloratu eta edozein egoera aztertzearen arduraduna da. Arrazoibidea eta pentsamendua gainerako animalia guztien-gandik erabat bereizten gaituen gure buru kontzientearen xehetasunak dira.

Bigarrena, buru azpikon-

tzientea, erabat desberdina da. Bere zeregina era automatikoan beti programa berdina gauzatzeko da. Buruak mota jakin bateko seinaleak jasotzen dituen erantzun zehatz batzuk ematen ditu, beti berdina. Bere jarduerak izaera erreflexuduna da eta, ondorioz, ez daude arrazoiaren edota pentsamenduaren kontrolpean.

Atal biak dira garrantzitsu gure bizitzan. Buru kontzienterik gabe gure senak besterik ez gintuzke gure ekintzetan gidatuko. Atal azpikontziente bizirik mantentzen gaituena da, gure soinari pentsatu beharrik gabeko bizi-prozesuak ahalbidetzen baitizkio.

Adierazitakoak bezalako desberdintasun nabarmen horien ondorioz gure buru azpikontzientearen indarra ikaragarrikoa da: gure buru kontziente etengabe saihestu eta albortzen du eta egoera jakin batzuetan arrazoibidez pentsatzeko gure gaitasuna murriztera ere iristen da.

Ohiturak, atal kontzienteak parte hartze aktiborik izan gabe gure azpikontzienteak abiaraizitako errepikatuzko jarduerak eredu horiek dira. Bestalde, ohiturak, barneratuta ditugun sinesmenetan oinarrituta daudela esan dugu.

Sinesmena, gertaera baten lekuko izanak eragindako gure izaeraren sakonenean sortutako onarpena dugu, hau da, guk zuzenean ezagutu edo jasan izan dugun edota beste batzuk, baloratzeko gaitasunik ez geneukan bitartean, jakinarazi diguten guztia da.

Barneratuta ditugun sinesmenik gehien jatorria gure egunerokotasuna baldintzatzeaz gain daukagun errealtatea zehaztera datozen sendi, lagun, irakasle eta antzekoak dira. Baina, zoritxarrez, ez daukagu horren kontzientzia garbirik. Gure sinesmenak dira, jarduerak eredu errepikakorrak sortzen dituen, gure azpikontziente elikatzen duen datu-basea. Ondorioz, gure bizitza gidatzen dute, eta gure jarduerak

eta jarreraren arduradun dira.

Gutariko bakoitzak ditugun hainbat sinesmen, baikorrak dira eta gure eguneroko jardueretan lagungarri izaten ditugu. Aldiz, sinesmen ezezkorrak [sinesmen mugatzaileak] dira benetan izan nahi duguna izatea eragozten digutenak eta ezartzen ditugun helburuak lortu ez egitera [gorago aipatutako batxiler mailako ikasleak] bultzatzen gaituztenak.

Sinesmen horietatik abiatuta sortutako eredu ezezkorrak (ohitura) dira arazoak sortzen dizkigutenak eta gizaki erabat eraginkorrak izatetik aldentzen gaituztenak.

Behar baino gehiagotan esaldi hauek bezalakoak entzuten ditugu: “Errua berea da”, “Arazoak besterik ez ditut erakartzen”, “Neu arduratzen ez baldin banaiz, gauzak ez dute aurrera egiten” edo “Gauzarik txarrenak beti gertatzen zaizkit niri”.

Irakurri dituzunak eragin-kortasunaren funtsezko oinarriak urratzen dituzten eta norbere kalterako besterik ez diren ohiturak sortzea garamatzaten sinesmen mugatzaileen adibide batzuk besterik ez dira.

Sinesmen horiei, beldurra, gutxiagotasunezko sentimendua, estutasuna, etsipena, etab. bezalako emozio-zama ezezkorrak gehitzen bazaizkie, eragozpen eta hondamendizko bizitza garatzeko berebiziko eremua-aren aurrean gaude.

Sinesmenak emozio-zamagrabatzen direnean, emozio-blokeoa sortzen dugu. Gure azpikontzienteak aipatu emozioa egintza erreflexu bezala errepikatuko du sinesmen horiek abiatzen duten jarduerak ereduaren atal izanez. Beraz, emozioaren sustapena denez, horretan, gure buru-kontzienteak nekez kontrolik izan dezake.

Irtenbidea gure emozioak eta sinesmenak kontrolatzean datza eurei gureganako kontrola gauzatzeko eragotziz.

Gorka Aurre
PRAKAGORRI



irakurri 4
ALDIZ ARINAGO
EMAITZA HARRIGARRIAK !

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermenak!
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.

PRAKAGORRI
Reading skills

Tel.: 944 915 763
Kurutzia kalea, 30
DURANGO
prakagorri@prakagorri.es

**9 urtetik aurrera, adin muga barik,
PRAKAGORRI dozu zure eta zure seme-alaben urtenbide**

Udan Mozambiken bizi izandakoa eskainiko du Miren Amurizak

Berrizen ipini du Miren Amurizak ‘Kapulana bat zintzilik’ erakusketa, lehenengoz, jendaurrean

> ERAKUSKETA Itsaso Esteban Arrasateko Mundukide Fundazioagaz elkarlanean burutu du Miren Amurizak Mozambikera bidaia, uda honetan. Izan ere, 15. urteurrena bete du Mundukidek, eta Fundazioaren lanaren inguruko argazki eta testu erakusketaren osagarri, Mozambikera bidaiatu eta bueltan han bizitakoaren kontakizuna egitea proposatu zioten Amurizari: “Erakusketa oso informatiboa da, eta horren osagarri proposatu zidaten zerbait sortzea”.

Iazko otsail-martxoan proposatu zioten Mozambikeko proiektua bertatik bertara eza gutzea, eta bidaia horrek sortutako sentsazio eta gogoetatik sortzea. “Oparia izan da”, Amurizaren berbetan.

Berrizen aurkeztu zuen bertsolariak atzo, *Kapulana bat zintzilik* erakusketa, eta domekara arte kultur etxean egongo da ikusgai. Mozambikeko andrek janzteko, edo ortuan landatuko dituzten haziak, jasotako ortuariak, edo umeak eramateko baliatzen duten oihalarri egiten dio izenburuak erreferentzia.

Mozambike iparraldeko Marropa eskualdean bost astez egon zen Amuriza, Mundukidaren proiektua bertatik bertara ezagutzen. Nekazaritza koope-

ratiboko proiektuak dira Mundukidarenak.

“Hara joan orduko, zer egin go nuen pentsatzen hasi nintzen, eta hainbat ideia bururatu zitzaizkidan”, kontatu du Amurizak, “hango adineko pertsonen mitoei buruz berba egitea, poskolonialismoaz edo feminismoaz gogoeta egitea adibidez...”. Baina han egonda konturatu zela dio Amurizak, analisi horiek bertakoen mundu ikuskerarekin ez dutela zerikusirik. Eta beste bide batetik jo zuen.

Deskribapenak

Bere kontakizunean, topikoetan ez jaustea izan da Amurizaren ardura nagusietako bat, eta oso argi eduki du baita, ez zuela “panfletorik egin nahi”, ezta “gure diskurtsotik aritu” ere.

Topikoak, orokorkeriak eta teorizazioak ekiditeko, deskribapenak dira Amurizak proiektu honetarako sortu dituen testuak; bertso zein ipuin forman eman dituenak, esaterako. “Entzule bakoitzak bere ondorioak atera ditzan”. Pertsonak, lekuak eta egoerak deskribatzen dituzte Mozambikeri buruzko testuek.

Sei gai dira *Kapulana bat zintzilik* erakusketarako Amurizak sortu dituen testuen ardatzak: Mozambikeko historia, Mundu-



Eider Eibar ilustratzailea eta Miren Amuriza bertsolaria, erakusketa prestatu aurretikoan.

kide eta kooperazioa, haurtzarora, emakumearen egoera, eta Afrikaren inguruan guk daukagun ikuspegia.

Egoera gordina den arren, Mozambikeko jendearengan duintasuna topatu duela dio Miren Amurizak: “Ez dut eskurik eskean ikusi; beharrean aritutakoak baizik, zikindutakoak”.

Mozambiken egin dituen argazki eta testuetan oinarrituz, ilustrazioak lantzea proposatu dio, bestalde, Amurizak, Eider Eibar ilustratzaileari, eta erakusketaren atzoko aurkezpean erakutsi zituzten.

Abenduan, Zaldibarrera eroango dute erakusketa, eta Ezkio-Itsason, Gernikan eta Oñatin ere erakutsiko dute.



Amurizak Mozambiken egindako argazkietako bat.

Durangoko rock&rolla eta hip hopa aukeran, bihar, San Faustoetan

Beat Salad eta Bart... Sax! Andra Marian ariko dira; txosnagunean joko du Yoko Out-ek



Baxu-jotzaile berria eta kanta berriak aurkeztuko ditu Yoko Out zazpikoteak, Durangon, bihar.

> MUSIKA

Durangoko Udalak eta Txosnaguneak San Fausto jaietarako antolatu duten egitarau oparoan, Durangoko musikariekin hainbat hitzordu daude datozen egunetarako. Azpimarragarriak dira, esaterako, biharko hitzordu bi. 20:00etatik aurrera, *Go b(l)ack* emanaldia eskainiko dute Bartolome Ertzilla Musika Eskolako saxofonista gazteek eta Beat Salad kolektiboko hip hoplariek, Andra Marian. Txosnaguneko gaueko kontzertuetan ariko dira, bestalde, Durangoko Yoko Out taldekoak.

AEBetako blues musikatik hip hop errimetarainoko bidaia musikala proposatuko diete *Go b(l)ack* ikuskizuna gozatzerantz bertaratzen diren musikazaleei. Kotoi-sailetan sorturiko blues doinuetatik areto-ragtimera; New Orleanseko dixietik, swing eta big banden musikara; soul, rock eta jazzetik esperimentaziora eta hip hopera bidaiatzera gonbidatuko dituzte bihar An-

dra Mariako emanaldira doazena. Durangoko musika eskolak Plateruenean antolatzen dituen jam session saioetako batean ezagutu zuten elkar Bart...Sax! taldekoek eta Beat Salad kolektibokoek, eta proiektu hori jarri zuten martxan.

Yoko Out bueltan


Urtebete inguru darama Yoko Out Durangoko zazpikoteak kontzerturik eman barik, eta gogotsu hartu dute San Fausto jaietan jotzeko aukera. Gutxi aritzen dira zuzenean, eta “ilusio handiz” hartzen dute aukera bakoitza. Zirrara berezia eragiten die biharko kontzertuak, gainera. Izan ere, baxu-jotzaile berriari ondo etorri “ofiziala” egiteko baliatuko dute.

Aurreratu dute, iaz kaleratu zuten *Portabentura* diskoko eta 2010ean lehena izan zuten *Poeta hiltzaileen hamarkada* diskotako kantak ez ezik, kanta berriren bat ere aurkeztuko dutela Durangoko jaietan.

Iñaki Larrinaga (Elorrio, 1988) | Aspeko pilotaria izan da bost urtez

“Erregulartasuna eta neure buruagan konfiantza apur bat falta izan zaizkit”

Profesionaltako etapa amaituta, afizionatuetan jarraituko du, bere esperientzia herriaren zerbitzura ipinita



Iñaki Larrinaga Elorrian, udaletxe ondoko pilotaleku irekian.

> KIROLA J.Derteano

Bost urtez profesionaltako ari-tu ostean, Iñaki Larrinagak az-ken partidua jokatu zuen As-pegaz, sanmateotan. Oraindik gaztea da, eta afizionatuetan jarraituko duela dio: “26 urte-gaz ez naiz etxean geratuko!”. Profesionaltako presioa alde batera utzita, gozatzea izango du helburu.

Pare bat aste dira azken parti-dua jokatu zenuela. Zure bizi-tza asko aldatu da?

Entrenamendu aldetik aldatu da, batez ere. Lehen, buru-belarri entrenatzen genuen, bai alderdi fisikoa bai teknikoa. Orain, neure kontura egiten dut dena, lasaiago eta presio barik. Horixe da gehien igartzen dena: presiorik barik aritzea.

Lanean zabilta?

Bai, Aspen hasi nintzenerako ere lanean nenbilen, mekani-kari, Elorrio bertako enpresa batean. Goizetan bost ordu egin, eta arratsaldean entrenatzera. Aste konpletoak izan ditut.

“*Lagun handiak egin ditut, eta gure artean egon den giroa ez dut sekula ahaztuko*”

Zelan jakin zenuen ez zenuela jarraituko?

Zortzi hilabeteko azken kontratua egin zidatenean, esan zidaten kontua beltz zegela. Beraz, imajinatzen nuen kontratu horren amaieran bukatuko zela nire ibilbidea. Beti eusten diozu esperantza puntu bati, baina azken hilean, garbi neukan ezetz. Eta, egia esanda, harrezkero, pilotan gozatzea lortu dut. Jarraituko ez nuela esan zidatene-tik, partidua jokatu ditut. Azken pare bat hiletan jokatu ditudan partidurik onenak izan dira. Azken hamar partiduetatik bat galdu dut. Presiorik ba-rik eta gozatzerantz joan naiz. Beti izan naiz nerbioz samarra, zer esango ote duten nitaz... eta alde horretatik beti sufritzen nuen.

Sanmateotan jokatu zenuen azken partidua, eta irabazi egin zenuen. Partidu berezia izan zen?

Beste baten moduan hartu nuen, baina, partidua amaieran, emozionatu egin nintzen apur bat; jendea tente jarri zen, lagun batzuk ere etorri ziren ni ikus-tera: Peñagarikano, Olazabal... Gustura amaitu nuen. Profesio-naletatik eramaten dudana gau-zarik handiena horixe da: lagun handiak egin ditudala, eta gure artean egon den giroa ez dudala sekula ahaztuko. Koadrila baten modukoa zen, eta frontoitik kan-pora ere lagunak dira.

Partiduaren ostean, familia ar-gazki polit bat ateratu zenuen. Hamarrekoa izateko, detaile bat falta zitzaion, buru gainean txapela.

Bai. Bigarren mailako final bat jokatu nuen, eta penatan geratu ginen, galdu egin genuelako. Baina egundoko txapelketa egin genuen. Ez geunden ligaxkara sartzeko faboritoen artean, eta are gutxiago finalera heltzeko

hautagaien artean. Finalera heldu, eta aurkariei gauzak kon-plikatu genizkien. Pena izan zen Elorriora txapel bat ezin ekarri izana, baina bigarren postu ho-rregaz be konformatzen naiz.

2012an izan zen final hori. Urte hura izan zen zure ibilbide pro-fesionaltako onena?

Beste momentu on batzuk ere izan ditut; txarrak ere bai. Bai-na, azkenean, gogoratzen dena emaitzak izaten dira, eta alde horretatik, bai, txapelketa hura izan zen lorpen nagusia.

Zelan definituko zenuke zure ibilbide profesionala?

Nahi baino laburragoa izan da. Bizitzako beste esperientzia ba-ten moduan hartu dut. Gustura egon naiz, eta enpresari eske-rrak ematen dizkiot eskainitako aukeragatik. Edonor ez da ego-ten profesionaltako jokatzeko.

Erregulartasuna falta izan zaizu?

Baliteke. Momentu onetan, lehen partidua jokatu izan ditut, baina, hurrengoan, hi-rugarren partidua jokatu, eta gaizki egoten nintzen. Erregu-lartasuna eta neure buruagan konfiantza apur bat falta izan zaizkit. Galtzen nuenean, edo txarto jokatzeko nuenean, nitaz zer esango ote zuten pentsatzen nuen, eta buruari bueltak ema-ten nizkion, astean zehar. Parti-duekin gozatu beharrean, beste kontu batzuei begira eta apur bat kokilduta egoten nintzen.

Zelakoa da bigarren maila? Gazteei aukera asko eskaintzen zaizkie, baina hasiberria segi-tuan bihurtzen da beterrano...

Enpresen ikuspegia aldatu egin da. Sasoi batean, pilotariak gehiago eusten zioten. Orain, urte batzuk egin, eta maila era-kutsi ezik, gazteek ordezkatzeko dituzte. Izarra ez bazara, pilota-rien bizitza nahiko laburra da gaur egun. Beraz, ikuspegi oro-kor bat izan beharra dago. Gazte batzuek ikasketak apur bat albo-ra uzten dituzte, eta kontuz ibi-li behar da. Ezin zaitezke fida-tu. Azken batean, enpresa bat di-ra, euren ikuspegia dute, eta to-ki bat egitea gaitza da.

Zuk mekanikari lana zeneukan. Horrek pilotari garapenean, okerrerako eragin ote du?

Ez, kontrako. Banekien, egu-nen batean, pilotaren ibilbidea amaitu egingo zela, eta lasaita-suna ematen zidan. Beste ba-tzuk, hamar urtez pilotan aritu, mundu horretatik irten, eta zer egin jakin barik egoten dira.

Gaztea zara oraindik, aben-duan 27 urte egingo dituzu. Aurrera begira, zer asmo duzu pilota munduan?

Afizionatu moduan jarraituko dut, Elorrioko klubagaz. Burgos inguruan pare bat partidua joku-tu ditut dagoeneko. 26 urte-gaz ez naiz etxean geratuko!

Frontis, Garfe, EgurSport... beste enpresa batzuk ere ba-daude.

Batzuek deitu didate, baina gehiago izaten da udara begira. Orduan, aukera gehiago izaten da. Neguan gatzagoa da. Ikusiko dugu. Azken batean, enpresa ho-rietan egon arren, afizionatue-tan jokatzeko jarraitu dezaket.

Igor Azpiri eta biok herri arte-koan parte hartzen baduzue, ... Saiatuko gara. Herriak dena eman dit. Hemen egin naiz pi-lotari, partiduetara lagundu didate... Elorriok, elorriarrek eta pilota klubak eskaini dida-ten laguntza profesionaltako nire esperientziagaz itzuli ahal badiet, poztuko naiz.



Azken partiduen ostean, hainbat pilotarigaz batera ateratako argazkia.

Izarrik handienak Anboton gora, errekor berriaren bila

Anboto Kilometro Bertikalerako 300 plazak beteta zeuden astelehenerako; onenak datoz, eta adituen ustez, errekor berriak ezarri daitezke



Parte-hartzaileek 1.092 metro igoko dituzte 3,8 kilometrotan, Arrazolan hasi, eta Anbotoko tontorrera heldu arte.

> MENDI LASTERKETA J.D.

Anboto Kilometro Bertikalaren VIII. aldia lehiatuko dute zapatuan, eta modalitateko izarrik handienak etorriko dira, tartean iazko irabazleak: Aitor Osa debarra gizonetan eta Nahia Quincoces mendexarra emakumeetan.


Emakumeetan, Oihana Kortazarrek behin baino gehiagotan irabazi du proba, eta 2011n ezarritako errekorrak

indarrean dirau oraindik: 47.10. Joan zen asteburuan, Sorginen Lasterketa irabazi zuen, eta aurtan, Mont Blanc-eko maratoin bigarren geratu da. Kortazar eta Quincocesekin batera, Montserrat Vazquez, Aitziber Ibarbia eta Inma Aranburu espezialistak ere badatoz. Izen horiekin, aurtan errekor berria lortu daitekeela uste dute antolatzaileek.

Gizonetan zaila izango da 2011n Marco de Gasperi italiar

rrak ezarritako denbora hobetzea (37.14), baina goi mailako lehia espero da Osa, Oier Ariznabarreta, Imañol Goñi, Iban Murua eta Andrea Caroli suitzarraren artean. Osa Kilometro Bertikalen Espainiako Kopako txapelduna da, eta Ariznabarreta durangarrak Sorginen Lasterketa irabazi berri du.

Parte-hartzaileak 14:00-17:30 artean irtengo dira Atxondoko Arrazolatik.



Aitor Ajuria
Otxandio, 1998

Aitor Ajuriak lehenengoz egingo du Anbotorako igoera. Kilometro bertikalen etorkizuneko kimua da ottxandiar gaztea. Beriaingo KBan 21 urtez azpikoa irabazi zuen.

Zer sentsazio dituzu?
Entrenamenduetan hiru bider egin dut Anbotorako igoera,

azkenekoz astelehen honetan. Topera aritu, eta ondo sentitu naiz. 44.40ko denbora egin nuen astelehenean.

Uharte Arakil-Beriaingo KBaz alderatuta, zein da gogorra-goa?

Anbotokoa askoz gogorragoa da. Kilometro bi gutxiagoan desnibel ia berdina igotzen da. Ez dago atsedetik hartzeko aukerarik. Gora eta gora puntara heldu arte, hori da ibilbidea.

Zapatuan zein izango da zure helburua?

Ahalik arinen goraino heltzea; ibilbide erdian ito, eta gora heldu ezinik ez geratzea. Indarrak ondo neurtu behar dira.

“Beriaingoa baino askoz gogorragoa da Anbotorako igoera”

Zure ustez, nork irabaziko du?
Aitor Osak. Beriainen ikusi nuen, eta ikaragarria da aldaipanga gora.

Ariznabarreta, Lariz, Osa... ezagutzen dituzu?

Badakit nortzuk diren, jakina, baina ez ditut ezagutzen. Otxandion Arkaitz Zamakona ezagutzen dut, Euskal Herriko selekziozko kidea izandakoa. Beragaz eta beste batzuekin aritzen naiz. Baita bere anaia Markelegaz ere. Honek ere parte hartuko du, bihar.

Urrejola eta Iturraspe zesta finalaren atarian

> ZESTA

San Fausto zesta txapelketa azken txanpan sartuta dago. Zapatuan, 18:00etan, finalerdia jokatuko dituzte, Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan. Finalera sartzeko borrokan egongo diren bikoteetako bat Egoitz Urrejola eta Igor Iturraspe durangarrek osatzen dute.

Joan zen asteburuan, Biarritzeko Narbarte eta Bussinelo 30-28 menderatu zituzten. Jardunaldi berean, Lohitzuneko Tamborendeguy eta Laborde ere sailkatu ziren, Gasteizko bikoteari irabazita. Berriatua-ko Aimarrek eta Lekuek eta Hossegorreko Lesbats-ek eta Etcheberryk osatzen dute finalerdietako laukotea.

Finalerdian Durango-Berriatua eta Hossegor-Donibane Lohitzune dira parekatzeak.

Korrikalaria patinatzailea baino bizkorrago

> ATLETISMOA

San Fausto jaien harira, Durango Kirol Taldeak Atletismo Eguna antolatu zuen joan zen asteburuan, Ezkurdi. Askotariko erakustaldiak izan ziren, eta baita desafio bitxi bat ere: Orkatz Beitia korrikalaria David Gutierrez patinatzaile kubatarraren kontra, 100 metroan. Balio bako irteera batean, energia asko gastatu ostean, ematen zuen patinatzailea nagusituko zela, baina Beitia arinago egin zituen ehun metroak.



ADITUAREN TXOKOA

GOTZON GOMEZ

Errugbia



Munduko txapelketa

Errugbizaleok lau urterik behin munduko txapelketa-ren hitzorduaren zain egoten gara. Bertan, ipar zein hego hemisferioko talde onenak lehiatzen baitira, munduko onenaren saria lortu guran.

Ez da lan erreza izaten sarrrerak lortzea, batez ere goi mailako taldeen arteko norgehiagokak ikusi ahal izateko. Baina zoria gure alde izan dugu, eta DRTko ordezkari batzuk Londresen izan gara.

Partida ikusgarri bi genituen zain: Frantzia-Italia eta Zeelanda Berria -Argentina. Garaipenerako kinielatan dauden hiru talde ikusteko abagunea. Egia esan, ikuskitunak eta ordaindutako pوندak, merezi izan zuten. Larunbatean frantziarrek errez hartu zuten menpean Italia, hala ere, Twickheamera joatea eta bertoko giroa dastatzearagorria izan zen.

Igandekoa, beste kontu bat izan zen. Ikusgarria goizeko lehen orduetatik Wembley Stadiumera hurbildutako jendetza. Milaka eta milaka zale batu ginen. Giroa ere apartekoa izan zen, familia ugari, zaleak nahasturik, zeelandarrak serio, txukun, patxadatsu, argentinarrak orde, zaratsatu eta alaitu, izaera latinoak erakutsiz. Partida ere ederra suertatu zitzaigun. Argentinak inoiz ez bezala jokatu ere, Zeelanda Berriak irabazi zuen.

Ezustekoa Ingalaterrak eman du, lehenengo aldiz antolatzailea txapelketatik kanpo geratu da hasierako fasean. Nire ustez, irabazlea hego hemisferioan dago. Australia polito dabil, Zeelanda Berria beti da faboritua, baina kontuz argentinarrekin, gogotsu eta indartsu dabilta eta. Hemen- diki aurrera, DRTk duen tabernan ikusi beharko ditugu!

katerin ardoak
inaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

hitz #gomendioak

artekalea 14, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT
MUNDUA BETETZEN
ZENUTEN
Tere Irastorza (2015)

UME ETA GAZTEENTZAT
PUPU ETA LORE
JELOSKOR
Uxue Alberdi &
Julen Tokero (2015)

MUSIKA
MIS TESOROS
Chavela Vargas (2013)

BELDUR BARIK 2015



"Panteras Rojas" irabazleak 2. kategoria, 2014, Urola Garaia.



ZABALDU ZURE BELDUR BARIK JARRERA!

Parte hartu Lehiaketan eta etorri Topaketara!
Azaroaren 28an, Amurrión (Araba).
Denok indarkeria sexistaren aurka!
Sari banaketa, tailerrak, erakusketak...
informazio osoa www.beldurbarik.org-en eta gure
sare sozialetan.

www.beldurbarik.org



#BBlehiaketa
2015eko Irailaren 11tik
Azaroaren 11 arte.



#BBtopaketa
Amurrión, 2015eko
Azaroak 28.

DURANGALDEA BELDUR BARIK LEHIAKETA

LEHIAKETA

Nori zuzendua: Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarren erroldatuta, ikasten edo herri horietako elkarteren batean parte hartzen ari diren 12-26 urte bitarteko gazteak.

SARIAK

Kategoria 12-17 urte **Lanik onena** 150€ **Aipamen berezia** 100€

Kategoria 18-26 urte **Lanik onena** 300€ **Aipamen berezia** 200€

Lanak jasotzeko epea: Azaroak 11

TOPAKETA

Sariak Durangaldeko Beldur Barik Topaketan jakinarazi eta banatuko dira.

Data Azaroak 26

Lekua Arriola Antzokia-Elorrio

Ordua 18:30

EAE-KO LEHIAKETA

Durangaldeko lehiaketan aurkeztutako lanek zuzenean parte hartuko dute EAEko lehiaketan ere.

SARIAK

Kategoria 12-17 urte **Lanik onena** 500€ **Aipamen berezia** 300€

Kategoria 18-26 urte **Lanik onena** 500€ **Aipamen berezia** 300€

Saria ikus-entzunezko ekoizpen onenari 300€

Herriaren saria 300€



ANTOLATZAILEA



BULTATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Goikoetxea eta Garita durangarra bikote, Durangoko zesta torneoan

Munduko zestalaririk onenetakoak batuko ditu San Fausto Torneoak



Zestolari eta Jai Alive enpresako antolatzaileak Durangoko udaletxean egindako aurkezpenean. Jai Alive

> ZESTA J.D.

Hiru urteko parentesiaren ostean, goi mailako zesta partiduak bueltan dira San Fausto jaietan. Jai Alive enpresaren eskutik, munduko pilotaririk onenetakoek San Fausto tor-

neoa jokatu dute Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Domekan, 18:00etan, finalerdiak jokatu dituzte, eta urriaren 13an, martitzenean, finalak. Torneoak hainbat interesegune ditu. Esaterako, etxeko

